



HAL
open science

GABON-KANTAK

Aitor Ortiz de Pinedo

► **To cite this version:**

| Aitor Ortiz de Pinedo. GABON-KANTAK. inPress. artxibo-02304029v2

HAL Id: artxibo-02304029

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-02304029v2>

Submitted on 13 May 2020

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Gabon-kantak

Azpiatal berezi bat eskaini nahi zaio bertso-sail mota honi hemen, Antologiaren lehenengo liburukian jada zenbait Gabon-kanta jaso arren, hain zuzen, Lazarragaren “Barri onak dakart” (279-280 orrialdeetan), eta baita Antologiaren bigarren liburuki honetan idazle hauen lanak ere: Joanes Etxeberri Ziburukoa, Salvat Monho, Bernard Gazteluzar.

Gabonetan bada ohitura Euskal Herrian ospakizunak kantaz hornitzekoa. Gabon-kanta hauek tankera eta estilo askotarikoak dira. Besteak beste: noelak, marijesiak, artzain-kantak, gabon-sariak...

“Noelak” izeneko konposizioak ez dira faltatu ekialdeko euskaretan: *Noël* hitza frantsesez, “Gabonak” edo “Eguberriak” berbekin ematen da euskaraz. Joanes Etxeberri Ziburukoa, Salvat Monhok eta Bernard Gazteluzar idazleek “noela(k)” hitzez izendatzen dituzte molde honetako bertso-sortak. Klasikoa da Joanes Etxeberriren *Noelak* (1630/1631) eta, ezezagunago bat aipatzearen, Barneix Altxabeheitiren *Noelen lilia* (1782), non igandeetako kantak badiren Abenduan kantatzeko.

Ekialdetik Mendebalera eginda, Bizkaiko herrietan ohitura ezaguna izan da Gabonetan gazteak eta etxez etxe joatekoa eskean, “Marijesiak” izeneko ahapaldiak kantatuta. Gazte taldea, herriko eskolatuek irakatsita (apaiza, maistra), bisitan doaz auzoz auzo; etxe edo baserriaren atartean “Abe Maria purisima!” esaten dute heltzean. Segidan galdetzeko ohitura da: “Kantatu ala errezatu?”. Etxekoek kantatzea nahiago bazuten, hasten ohi dira kantatzen gaztetxoak; edo, bestela, errezatzen. Amaieran esker oneko esku-erakutsiren bat edo oparia egon ahal zen etxekeo aldetik, bestelako eske-kanta batzuetan bezala: urte berrikoak, Olentzerokoak, Santa Agedakoak... Gazteek merienda edo antzeko on bat egiteko modua izaten dute horrelakoetan: biberak, dirua... jaso eta gero. Tradizioa etenda egon den arren, batzuetan berreskuratu egin da, eta, esaterako, 2018an marijesi-kantarien elkarretaratzeak egin dira elizan, kantari helduek abestuta (Interneten eskuragarri).

Gernikan eta inguruetan ere bada ohitura indartsua marijesiak kantatzekoa gabaz. Doinuak ez dira beti bat, eta lekuaren arabera alda daitezke. Gernikakoen berri Jose Antonio Arana Martija musikologoak jaso du, besteak beste.

Badirudi azken aldi honetan Gernikako moldea nagusitzen ari dela hedabideetan, hala letraren aldetik nola doinuaren aldetik eta komunikabideetan eman zaion zabalkundeagatik. Hona hemen ezagunak diren txatal batzuk irakurleak begitandu ditzan estilo aldetik: “Abendu santu honetan / Kristoren jaiotzia / kontentuaren haundiz / guztiak poz gaitian. Maria Jose / Jesus Maria”. “Ireki dira zeruan ate diamantezkuak / hareekin batera leiho zilarrezkuak”. “Adam formatua lehengo lurrian / pekatu egin eban paradisu terrenalian”. “Hogeitalaugarrena dogu abenduan, desio genduen bai lortu genduan”. “Marijesiak” izena “Maria Jose” errepika horretatik dator. Historia sakratua bertsoetan emana.

Hizkerari erreparatuta, sumatzen da freskotasun nabaria, bertsoarritza zaharraren bidetik, itxura batera (Txirrita...), adierazia zuzen ematearen bila itzulingururik gabe, herritar eskolagabeen eguneroko hizkera bizi adierazkorrean. Fonetismoak tokian tokikoak dira, eta inoiz pentsatuko balitz koplak hauek gizarteratzea hezkuntzaren arloan, testuak estandarizatzeko aukerak aztertu beharko dira. Marijesietako metaforak eta konparazioak herri-literaturako berak dira, adibidez: diamantea, urrea, zilarra... materia-hitzak hiperboleak adierazteko erabiliak.

Bilbon ere kantatu ohi ziren euskaraz kantak Gabonetan aurreko mendeetan eta estilo horretan, hau da, bertso sorta luze samarretan. Jasota daude eta argitaratuta, eskuragarri, Santiago elizan jatorria dutenak.

Lekuaren arabera, beste Gabon-kanta tipiko batzuk ere entzuten izan dira, horiek ere ezagunak; gogoratu, adibidez, kanten hasierako lehen lerro hauek: “Mesias sarritan agindu zana”, “Oi, Betleem, etorri da zure garaia...”, “Aingeru batek Mariari

diotso graziaz betea...”, “Belengo portalian, negu gogorrian, jaio da gure Jesus ostatu batian...”

Bizkaierazkoak dira hona ekarriko ditugun lagin bi. Mendebaldeko hizkuntza-ondareak baditu erakusgarriak Gabonetako kanten eremuan. Bizkaierazko testuak espero ahal dira Mendebaldean; kontuan izan bizkaieraz aritu direla mendez mende baita Urola bailaran eta, Arabako iparraldean ere, Aramaion.

Duda barik, pozgarria litzateke zehatzago jakin ahal izatea Txorierrin, Uriben, Arratian eta enparauetan zer literatur lan loratu den jai hauetan, mendebaldeko Gabon-kanten panorama osotuagoa izateko. Jarraian lau Gabon-kanta biltzen dira, tankera, eremu geografiko eta euskara molde desberdinetakoak.

Gabonetako jaiak aukera aproposa izan dira adierazpen artistiko bereziek lekua izateko jendartean (musika, antzerkia, pintura, gastronomia...), egutegi kristauan leku seinalatua dutenez gero. Jakina denez, neguko solstizioa seinalagarria izan da jentiletan ere, itxura guztien arabera: bada, horren lekuko, arbolen gurtza, herri-kanta frantses, aleman eta ingelesetan: “Mon beau sapin”, “Oh, Tannenbaum”, “Oh, Christmas tree”... Euskal esparruan eta Arantzazuko Santutegiko behatokitik begira, Pello Zabalak, eman du arbolen gurtzaren berri zelten artean, urtaroen arabera, arbola mota bakoitzak zelten artean izan duen sinbolismoa gogoan: jo haren liburuetara argibide bila.

Atalaren sarrerak eta oin-oharrak: Aitor ORTIZ DE PINEDO

Eder dek olaan gabia

XVIII. mendeko (1705) artzain-kanta edo bilantziko hau xx. mendearen hirugarren hamarkadan aurkitu zen Laurgaingo (Aia, Gipuzkoa) ganbara batean, melodia eta guzti, musika-paper ugariren artean.

Umore oneko bertso herrikoiak dira. Ahapaldiotan, bertsogileak, edo bertso-esaleak, Betleemen ikusten duena azaltzen du, orainaldian, bertan balego bezala, zorioneko lekuko gisa. Ardoaren aipua ere bada, topa egitea hasieran eta ardo eskea bukaeran. Lehen bertsoan ematen den irudien metaketa ez da zentzugabea, baizik eta herri-literaturak baliatzen duen baliabide estilistikoa giro berezia sortzeko, Manuel Lekuonak aztertu duen bezala kpla zaharretan. Aipagarria da kontakizun sakratua herriko bizitzan txertatzeko ahalegina, tokiko pertsonaiak kontakizunean txertatuta. Umorea eta xalotasuna ere bada, idiak umeari azpiko lastoa jango diolakoan...

Bertsioaren oinarria: Manuel Lekuona, “Gabon-kantak”, *Egan*, 1956 (5-6), 9-44 [27-28].
or.

Leloa

Eder dek olaan¹ gabia²,
larre onean ardia...
Nafar³ baino hobe diagu
Zaragozako zuria.

Brindatzen⁴ diat, Zeledon:
honixek egiten dik on,
sekulako honez gero
izango gaituk gu gizon.

Koplak

10 Beleneko portalepean
omen zeagok⁵ Jaungoikoa,
hura ekusten han omen dek
Paskoal gure aldekoa.

Goazen gu ere, Petiri,
Paskoal ez dek agiri;
ardiaz kontu dadukala
esan zeagot⁶ Gatziri.

20 Tenporau⁷ egon arren hotz,
banatxeak⁸ ni gogoz;
halako Jauna ekustekoz⁹
zer erur¹⁰ ta zer izotz?

Portalepean omen zeagok
haurtxoa narrugorrian¹¹,
dama eder bat dadukala
aldean bere adian¹².

Gizon bat ere omen dek
dirudiana santua,
bere izenez deritzena
San Josef justua.

¹ lantegian.

² “gabi”: mailu moduko tresna handia, oletan agoa, burdin salda, lantzeko erabiltzen zena.

³ nafar ardoa (gorria, beltza...).

⁴ Topa egiten diat.

⁵ diagok /zegok: dago (hikako alokutiboa).

⁶ diot (hikako alokutiboa).

⁷ denbora hau.

⁸ banoa (hikako alokutiboa).

⁹ ikusteko.

¹⁰ elur.

¹¹ biluzik.

¹² arretaz begira; bera zaintzen.

30 Haur gazte honen ohea
gutziz omen dek pobrea,
lastoz debana¹³ koznea¹⁴,
otez ohabetea¹⁵.

Bere aldean omen zeatuk¹⁶
astoarekin idia;
hoetxek biok jango zegoe¹⁷
oheko lasto guztia.

40 Astoak on dik oloa,
idiak arto-lastoa...
Festa honetan edan dezagun,
Petiri, ekar ardoa.

¹³ duena.

¹⁴ lastaira, koltxoi.

¹⁵ ohe estalki, ohazal.

¹⁶ daude (hikako alokutiboa).

¹⁷ diote.

Gabon-sariak

Sor Luisa Miserikordiakoaren izenarekin agertutako “Kopla-jostailuak”, berez, Frantzisko Xabier Maria Muniberen bertsoak dira, Peñafloidako kondea. Kopla hauek, *Gabon-sariak* (1762) artzain-operatxoaren bukaeran kokatzen dira.

“Kopla-jostailuak” hauek jostalari samarrak dira, izenak berak adierazten duenez, eta nabarmentzen dute gehiegizko solemnitatea gainditzeko saioek ere zentzua izan dezaketela.

Munibe ilustratuak, Euskalerriko Adiskideen Elkarteko handikia, kopla umoretsu hauetan islatzen du herriaren aurrerabide ekonomiko eta kulturalaren aldeko ikuspegia. Adiskideen Elkarteak euskal ilustratuen biltokia zen, herrialdea aitzinatzeko asmoz sortua, Argien mendean beste leku askotan sortu zirenen parekoa. Testua irakurrita, erraz antzemango zaio Azkoitian eta inguruetan errotuta zeuden zalduntxoek espirituari: bakearen aldeko apustua etorkizuna hobea eta oparoagoa gogoan, eta herri ultraerlijiosoak lozorrotik ateratzeko ekimen gutxi asko urardotua. Euskal ilustrazioa moderatu samarra zen, Frantziako haren jatorrizko ilustrazioarekin konparatuz gero, gizarte-indarren korrelazioa bestelakoa zelako, hau da, ilustratu-kopuru askoz txikiagoa hemen. Entziklopedia erosteko ere autoritateen baimen berezia behar zen, eta entziklopedia izan ilustratuen oinarria. Obskurantismoaren lainoa uxatzea ez zen erraza.

Kopla hauetan, alderantzikatutako munduaren topiko ezaguna ageri da: gaixotasunak desagertuta daude; armen burdina goldetarako erabilia; aberastasuna erruz; egia nagusi; etsaitasunik ez (gaztelaua eta portugesa adiskidetuta, elkarri mokoka ibili eta gero gudu latzean). Harrigarria da kopla hauetan autore ilustratuak bere buruari barre egiteko askatasun hori, non bizitza osoan zehar aldeztu zituen idealak burla modura aipatzen dituen. Bide beretik ikusten da *El borracho burlado* (1764) antzerki umoretsua, Gabon girokoa eta beti ere edifikatzeko asmoz idatzia, despotismo ilustratuaren eredura. Hemen trufaz aipatzen diren elementuak Azkoitiko Zalduntxoek ahaleginak bilatzen zituztenak dira: herriaren aurrerabidea, arlo guztietako jakintzari esker, teknikoak barne. Ahalegin horren erakusgarri bat: Elhuyar anaiek, esaterako, wolframa bakartu zuten lehen aldiz, Euskalerriko Adiskideen Bergarako Mintegian 1783an. Adiskideek Europa kurrizten zuten, ahalik eta teknologia aurreratu eta eraginkorrena ekartzeko hiru probintzietara. Beren literatura ere optimismo horren barruan kokatzen da, ustez eta gizakia hobetu litekeela hezkuntzaren bitartez, literatura edifikantea baliatuta.

Kopla hauen hizkerari buruz, berba batzuk. Euskalkia hautatzearen haritik, esaterako, Euskalerriko Adiskideen Elkarteak (1765an sortua) erabaki ezinik ibili zen korapilo linguistikoa dela kausa. Gura zuten euskara hizkuntza eroalea izan zedila, beren asmo erreformatzaileak bultzatzeko antzerkiaren eta kanten bitartez, Bizkaiko mugan dauden Gipuzkoako bailara horietan; bizkaiera, gipuzkera edota gaztelania aukeran zeuzkaten beren asmo didaktikoak gauzatzeko. Inoiz gaztelania hobetsi zuten erabilera linguistiko batzuetarako (*El borracho burlado* Gabonetako antzezlanean, adibidez), eta gipuzkera hobetsi zuten bizkaiera bainoago, behinik behin erreparatzen bazaino segidako “Kopla-jostailuak” sortari, Frantzisko Xabier Munibek (1729-1785) ondua.

Xabier Altzibar ikertzaileak aipatu ditu Muniberen loturak Markinarekin. Hizkuntzalariek frogatutzat jotzen dute Euskalerriko Adiskideak bizi ziren inguruan gipuzkerak lilura berezia sortzen ziela, jatorrizko berbetaren gainetik. Gaur egun ere, horrela dirudi. Ez alferrik, Sor Luisa Miserikordiakoaren kopletan gipuzkerazko adizkien ondoan, bizkaierazko partizipioaren agerraldiak topa daitezke. Joan Antonio Mogel (1745-1804) ere, hura ere ilustratua, zangalatraba ibili zen bi euskalkion artean, hein batean, nahiz eta *Peru Abarka* eleberri dialogatu bikaina Markinako bizkaieraz idatzi zuen.

Literatura konparatuaren bidetik, ohar pare bat. Badira, azken urteotan, koplajostailu hauen antzeko bertso-sortak kantaz emanak: euskaraz, esaterako: “Biziko gara horrela hirurehun bat urtez / banku guztietako jabetzaren kaltez, / sufrimendua eta nigarraren ordezt / farra eta parrandaz historia betez” (B. Atxagaren “Zenbait bertso xeble”, Ruper Ordorikak *Hautsi da anphora*-n (1980) kantatua); edota, gaztelaniaz, “Todas estas cosas / había una vez, / cuando yo soñaba / un mundo al revés” (“Érase una vez” José Agustín Goitisoloren olerkia, Paco Ibáñezek abestua). Literaturako topiko ezagun baten aurrean gaude, hau da, literaturaren historian zehar han eta hemen errepikatzen den ideia, kasu honetan Denbora Urrezkoaren topikoa non gizarteko kontrakotasun iraunkorrak urtuta dauden, kopla hauetan bertan hitzez hitz aipatua.

Jatorrizko iturria: Luisa Miserikordiakoa, *Gavon-sariac*. Azkoitia: Miserikordian, 1762. Bertso eta oharren oinarria. *Gabonsariak; El borracho burlado* / Xabier de Munibe, Conde de Peñafloreda. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1991, 191-195. or. [Edizio kritikoa: Xabier Altzibar].

Kopla-jostailuak

Ezagun du munduak
Jesus jaio dena,
hain dago mudatua
ez dirudi le(he)na:
le(he)n guzia zan pena,
negar, nahibageak,
ta orain atsegin, gusto,
algara, farreak.

10 Gorroto, errierta¹,
auziak ta gerra,
gaitzak, gose, gezur ta
intentzio okerrak
juanik: ja² ez dago
ezerren bildurrik
ta hala dago mundua
zeru bat eginik.

20 Abogadu, eskribau
eta merioak³,
mediku, barbero⁴ ta
botikarioak,
ez dira behar; ta hargatik
izango da sarri
Hipokrates gaxoa
saguen janari.

Ezpataak, lantzaak eta

¹ liskar.

² jada.

³ merino (gazt.); herrizain, udaltzain; aguazil.

⁴ sasi-mediku.

30 beste arma guziak
erositzen dituzte
errementariak:
ta alferrikan ez dedin
galdu burnia hura,
enpleatzera diaz⁵
gure probetxura.

40 Atxur, burdinara⁶ ta
golde bihurturik,
nekazari langinak
ongi giaturik⁷,
emango digu lurrak
garia ta artoa,
gaztaina, sagardoa
ta ardoa nahikoa.

Garia eta artoa
merke ta ugariro⁸,
gaztaina ta sagarra
berriz urte oro;
ta ardoak, galdurikan
le(he)ngo malizia,
ez gaitu mozkortuko,
edan zia-zia⁹.

50 Ez da honez gero esango
gezurrik batere,
egia esango dute
dendariak ere:
juan¹⁰ da hemendik tranpa
ta fede gaiztoa,
ja ur bage¹¹ saltzen da
tabernan ardoa.

60 Basa arteko piztiaak¹²
maltso-maltso¹³ eginik
ez dute ja alkar jaten
ta hain gitxi gizonik:
bat eginik guziak
elkarren artean
bizi dira etsai gabe

⁵ doaz.

⁶ bost, zazpi edo bederatzi hortzetako area.

⁷ ondo gidatuta.

⁸ ugari.

⁹ edan erruz, oparo. "Zia-zia": ugari, gogotik edatearen onomatopeia.

¹⁰ joan.

¹¹ gabe.

¹² piztiak.

¹³ mantso-mantso, otzan-otzan.

kontentuz bakean.

Otsoa eta ardia
zelai zabalean
sarri ekusten dira
biak jolasean:
alberdania¹⁴ txita
70 aizariarekin¹⁵,
portugesaz laztanga¹⁶
gaztelauarekin¹⁷.

Hauxen bai dala egiaz
denbora urrezkoa,
ta ez le(he)n koplari za(ha)rrak
erausitakoa¹⁸:
orain haien ametsak
egia sorturik,
80 ekusten adi gera¹⁹
pozez zoraturik.

Baina kanta berriak
gehitxo luzatu da,
nere eztarri tristea
ja urratu da:
nahiago det isildu
katarratu baino.
Agur, nere jenteak,
hurrengo urteraino.

¹⁴ jolasean.

¹⁵ azeriarekin.

¹⁶ laztanka.

¹⁷ gaztelauarekin.

¹⁸ azaldutakoa.

¹⁹ ari gara.

Gernikako Gabon-kante (1764)

Sebastian Antonio Gandarak Gabonetako hiru operatxo edo "Gabon-kanta" sail idatzi zituen, besteak beste: 1757, 1762 eta 1764an. Antologia honetan, 1764koa hautatu da: Gabonetako opereta txiki bat bizkaieraz idatzia. Opereta da "opera bufo edo komikoaren antzantzekoa, tragikotasuna alde batera utziz, gai arinak elkarrizketa eta kantuen bidez tratatzen dituen genero frantsesa", Literatur Terminoen Hiztegiaren arabera.

Barregarria da sortzen den elkarrizketa bizkaitarraren eta Muxil izeneko pertsonaiaren artean. Muxilek euskaraz trakets dihardu, eta efektu komikoa sortzen. Galdarak kaleko hizkera darabil, ez Munibek bezala hizkera jaso bere lanetan. Gandararen lanak erlijioari buruzko teatro piezak dira, elizan kantatzeko eginak. Eragin kultura nabari bada ere, herri teatroaren hizkuntza dute, orobat hizkera. Era berean, ahozko literatura esparruari dagozkion pertsonaia komikoak ageri dira.

Lantxoak sarrera bat du, *Sarmen*, eta hamabi ahapaldiz osatzen da; bertan Muxil eta Bizkaitar baten arteko elkarrizketa dakar: erritmo eta tonu arin eta atseginez taxutua, hizkera herrikoi eta naturalez garatua.

Ongi landutako bertsoak dira, bai neurritz, bai errimaz: 6a / 3b / 6a / 3b / 5c / 5c / 6a / 3b.

Gandarak Larramendiri bidali zion obratxo hau gutun batekin, adieraziz maisuak onartzen bazuen obratxoa, egileak poza hartuko zuela. Esker onez eta lana goratuz beste gutun batez erantzun zion Larramendik (ikus Larramendiren gutuna liburuki honetan bertan).

Jatorrizko iturria: Sebastian Antonio Gandara (1764), "Guernicaco Gabon-cante - Hurte 1764". Historiaren Errege Akademia (Madril), "Jesuitas" funtsa, 62 paper-sorta.

Bertsio honen eta oharren oinarria: J. Ignacio Tellechea Idígoras eta Manuel Lekuona (1966), "Gabon-Kantak" de Guernica (1764)", *BRSVAP*, 22-2, 157-171. or.

Gernikako Gabon-kante – Urte 1764 Muxil ta Bizkaitar baten artean

*Sarmen*¹

1. Hauxe ze gauea!
2. Zelanbere dan²!

1. Nik jakin-minea
asko da esan³.
2. Ekin bada, Muxila:
nahi ez zaitut isila.

1. Zeu lagun niri abia
urtengo kanta guztia.
2. Horrelan biz.

1. Poz dot izan.
2. Gakiozan⁴.

1. Ni zere aldiz⁵.

¹ Sarrera.

² Horixe bai dela, benetan dela.

³ Hots, nik hitz egiteko gogo handia dut. (Lekuona).

⁴ has gaitezen.

⁵ Ni zurekin txandatur.

Guztiak. Galanto, eretxian⁶,
horniduko da kantea.
Bakotxaren aldian
izango da euskerea
dagokien zorian.

2. Aurra⁷, maite,
hasi zaite.

I

Mux. Judan bat uria
da Belen.
Hona etorria
zan Birjen,
asentetako⁸,
zerren zalako
Jose, jatorria
Daviden.

*Euskaritxu*⁹

Iño¹⁰!
Guztiz alai
diño.
Honek nun-nahi
hots egin behar leuke
tantararai.

II

Bizk. Ostatu nahiaz zen
Maria.
Alperrik zan Belen
handia.
Ez zan aurkitu
nok han laketu¹¹
hari gela baten
grazia.

III

Mux. A, jente gangarra¹²

⁶ dirudienez.

⁷ Aurrera, ea.

⁸ kokatzeko, hau da, erroldatzera.

⁹ Lelo.

¹⁰ mirespenezko, harridurazko, interjekzioa.

¹¹ nork han atseginez eman, bihotz onez eskaini.

Belengo!
Guztiai zaldarra¹³
urtengo!
Zuek ukatu
Birjini leku?
Zuentzat sugarra
hurrengo!

IV

Bizk. Sartu zan abere
etxean¹⁴,
Jose zala bere
aldean.
Bertan Semea,
bakar berea,
argira zan¹⁵ gure
onean.

V

Mux. Nok dau ez horretan
mirari¹⁶?
Zeinbat zor geutsan¹⁷
Amari!
Hantxe nik egon¹⁸,
mosu da emon¹⁹
ointxu politetan
Berari.

VI

Bizk. Bizi direanak
lurretan,
baita dagozanak
goietan:
Andra txukuna
bihotz biguna,
zeuri esker manak²⁰
miletan.

VII

¹² ergela, harroa.

¹³ erlakiztena, larru azalaren infekzio zorneduna.

¹⁴ estalpean,

¹⁵ jaio zan.

¹⁶ Hots, nork ez du hori miresten, nor ez da horretan miraritzen.

¹⁷ diogun.

¹⁸ Hantxe egon banintz.

¹⁹ musu emango niokeen.

²⁰ esker onak.

Mux. Hago, Deabrua,
haserre,
oraintxe burua
jak²¹ erre.
Haginok nahiko
zerratu²²? Aiko²³!
Emon zorroztua
nik zerre²⁴.

VIII

Bizk. Birjina, zeurorren
besoak
dira gozoaren
gozoak.
Euretan sarri
Jaungoikoari
zagoz eragiten
*ohaoak*²⁵.

IX

Mux. Esanda nik²⁶, Birjen,
guztia:
sekula ta amen,
eztia
dala berbera
bururik pera²⁷.
Garbi dinot²⁸ hemen
egia.

X

Bizk. Jaungoikoa, zeuxek²⁹
hazia
izango, ez bestek,
Maria.
Hazitzailea,
idebagea³⁰,
dauko ugatz³¹ horrek

²¹ zaik.

²² nahiko (zenituzke) zerratu.

²³ Ea!, ekin!; begira!

²⁴ Nik emango (dizut) zerra zorroztua.

²⁵ obaubak, lo-kantak, seaska-kantak.

²⁶ Esango dut nik.

²⁷ burutik behera.

²⁸ diot, esaten dut.

²⁹ zerorrek, zuk zeuk.

³⁰ kiderik gabea, paregabea.

guria³².

XI

Mux. Ai, bekatariak
izan gu!
Zeure bitarteak
balidu³³!
Gure Jabea,
gugatik, ea!
Zuk egin sotilak
erregu³⁴!

XII

Bizk. Apaintzaileari
osaiak³⁵,
enda Baltzolari
graziak.
Egin dau bihar³⁶
biraldu behar
jakaz³⁷ Muxilari
sariak.

³¹ bular.

³² esnea.

³³ balia gaitzala.

³⁴ erregu xumeak, apalak, xaloak.

³⁵ laudorioak.

³⁶ Egin du lan; egin duen lana ikusiz, egindako lanari dagokionez (?).

³⁷ bidali behar(ko) zaizkio.

Eguberriren jitziaz

Gabon kanta edo noel hau 1782an argitaratu zen. Gero, Charles Bordesez jaso zuen, moldatuta, bere *Uskal noelen lilia* (1897) bilduman.

Bertsootan, Eguberria dela eta pozteko deia zabaltzen da, eta Jesusen izenaz xarmatzera gonbidatzen. Jesu Kristok gauzatu duen salbazio-gertaeren haria adierazten da, leku berezia (4-8 bertsoak), jakina, Betleemko misterioari emanez.

Hamar lauko, errima gurutzatua, eta lerro guztiak zortzi silabaz osatuak: 8a / 8b/ 8a / 8b.

Bertsioaren oinarria: Barneix Altzabeheiti (1782), *Noelen lilia*. Barkoxe

Lehen noela Adbentuko lehen igantian kantatzeko

Eguberriren jitziaz⁷⁴
gitian⁷⁵ izan bozturik,
Jesusen izen saintiaz
giren⁷⁶ oro xarmaturik.

Evak bere inbidiaz
falta egin zianian⁷⁷,
bertan Luzifer handiaz
poseditu ginandian⁷⁸.

10 Bena Jesus Kristek gutu
arraerosi berrizki⁷⁹,
eta gaitzeti libratu
guk merexitu gaberik.

Birjina batek du sortu
establia txar batetan,
eta berak adoratu
umiliate handitan.

20 Jesus sortu bezain sarri
aingiriez da laidatu⁸⁰,
bai eta ere hanti sarri⁸¹
artzainetzaz adoratu.

Orienterik jin zaitzo⁸²

⁷⁴ etortzeaz

⁷⁵ gaitezen

⁷⁶ garen (subjuntibo zaharra)

⁷⁷ oker egin zuenean

⁷⁸ deabruaz posedituta geunden; deabruak bereganatuta gelditu ginen

⁷⁹ gaitu berrerosi berriki; gaitu salbatu duela gutxi

⁸⁰ laudatu, ohoratu.

⁸¹ handik sarri, handik gutxira.

erregiak presenteki,
zoini eskentu beitzaitzo⁸³
umiliate bateki.

Mirra eta intzentsia
dutie ohoreskatu⁸⁴,
bai eta Jesus Krist
urrereki adoratu.

30 Errege haien gidatzen
izar bat beti martxatzen,
zeren Jesus Kristez beitzen
Jinkua berriz formatzen.

Jesus Kristek hanbat maite
uken du kristinua,
ezin erran beitaiteke
Hark dian amuriua.

40 Hil denaz geroz gugatik
supliziozko penetan,
dezagun otoi deboki
ezar gitzan zelian⁸⁵.

⁸² etorri zaizkio

⁸³ zeini eskaini baitzaizkio

⁸⁴ dituzte eskaini

⁸⁵ ezar gaitzan zeruan

